

Ovidius'en *Maita-bidea* eta beste zenbait lan euskerara itzuliak argitarara gabe jarraitzen dute.

Euskera eta euskal literaturaren irakasle egin izan du Paris'en eta Caracas'en. Paris'en, bere ikasleak izan ziren J. Mirande eta D. Peillen. beste zenbaiten artean. Andima, gizon jakituna eta apala genuen. ezagutzera eldu ziran guztiak maitatua eta ar-emanan izan dugunok ere ez gutxi; ain zabala ta maitalea bai zen bere biotza. G. B.

J. San Martín

JULIAN BARANDIARAN KORTAZAR «AITA EMILIANO» (1904-1967)

Markiñan, abenduaren 13-an il zan Euskaltzaindiaren laguntzaille zan Julian Barandiaran jauna, karmeldarra, praille izenez Jesus Aurtzoaren Aita Emiliano.

Aita Emiliano Gipuzkoako Eskoriatza errian sortu zan 1904-ko epaillaren 9.an. Nafarroako Milafranken, Markiñan, Gazteiz'en eta Bilbon egin zituan bere eleiz-ikasketak.

1921-ean asi zan «Euskal Esnalea»n euskeraz idazten. Geroztik aldizkari askotan idatzi izan du, batez ere «Karmel», «Olerti» eta «Zeruko Argia»n.

Argitaratu berri dugu bere *Euskal musikolari bikañak* (Itxaropena Argitaldaria-ren «Kuliska Sorta»n 65-a). Izan ere musika zuen bere doaietarik bereziena. Karmeldar ikastetxeetan ikasitakoaz gaiñera Monserrat, El Escorial, Madril eta Gazteiz'en egin zituan bere ikastaroak. Ortik zuen Maestro de Canto Gregoriano titulua irabazita. Baita ere, badu erderazko liburu bat *Psallite Sapienter* (Compendio de Música), 1956-an argitaratua.

Euskeraz argitaratu dituan liburuak, auek dira: *Andre Mari Euskalerriko mendietan*, Bilbao, 1952; *Andre Mari gaztediaren eskuetan*, Zarautz, 1954; eta aurtan argitaratu duen *Euskal musikolari bikañak*.

Argitaratu gabeen artean gelditzen dira: *Andre Mari gaztediaren biotzetan*, *Andre Mari Mirarietan*, Gar-Mar'en «Sugerencias» euskeraz (I Atala). Baita ere itzuliak zituan San Juan de la Cruz'en *Cántico espiritual* (Gogo-abestia) eta *Llama de amor viva* (Maitasun-sugar bizia).

Oiez gaiñera, urteetan zear bildutako Euskal-esakera sail ugari xamar bat zuen, eta oraintxi Euskaltzaindiari emandako *Eresi Ikasbidea*.

Euskerazko zenbait artikulutan maiz erabili dituan izenordeak dira: Olagoiti, Zapal eta Julen.

Azken urte onetan Euskaltzaindiaren billera guzietara agertzen zan, ta azaroaren 24-an ikusi genuen azkenengo aldiz gure adiskide apal eta zintzoa. Euskeraganako maitasunak etzun neurririk beregan eta Markiñan euskerazko ikastolak jartzeko lanetan bizkor ibili zan. Beraz, euskerak eta guk adiskide on eta leial bat galtzen dugu. G. B.

J. San Martín.